

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Gay hiztegia

Aitor Arana

TXALAPARTA

228 orrialde

14 euro


Gay hiztegiaren berrargitalpena

Aitor Aranak 2005ean Txalaparta argitaletxearen bidez plazaratu zuen *Gay hiztegia* berrargitaratu egin dute. Gizonezko homosexual eta bisexual euskaldunen artean erabiltzen diren izenek, adjektiboek eta esamoldeek osatzen dute nagusiki, *Gay hiztegia*, baina hauen inguruan eta etengabeko harremanetan dabil-tzan lesbianak, bisexual eta transe-sualek –hala nola hain ezagunak ez diren polisexualak eta pansexualak– ere, badute tokia hiztegian. Euskal Herriko Gay Askapen Mugimen-duak kaleratzen zuen *Gay hotsa* aldizkarian, 1988an, azaldu zen *Gayztegia* izan du Aitor Aranaren lan honek oinarri. Ahalegin hari,

hiztegiek, herri-hizkera bilketek, liburuak, aldizkariak eta galdeketeak eskaini diotena gehitu die, liburuan agertzen diren 1.300 sarrerek osatu ahal izateko. ■

Altxorak aurkitzen dituen txerria

Cornelia Funkeren istorio honeta-ko protagonista Jule da, itsaso zaba-lean altxorak aurkitzen trebea den txerrikumea. Anton Garikanok euskaratu ditu bere ibilerak. Piraten artean bizi izan da, harik eta etekin eskasa ematen zielakoan, upel batean sartu eta itsasora bota zuten arte. Zorionez, bi pertsona oso jatorren eskutara iritsiko da txerrikumea, itsas garraioak egin ohi dituzten Sven Pottolok eta haren txalupa-mutil Pitek aurkituko baitute. Txerrikumea upeletik atera eta bere txabolara eramango dute. Geroztik, hirurak joango dira txalu-pan uhartez uharte. Baina Jule altxorak aurkitzen hasiko da, ia astero topatuko ditu, eta bere lagunak urrearekin zer egin ez dakitenez, gertukoei oparitzen hasiko dira. Kontua piraten artean ere zabaldu egingo da ordea. Eta orduan, Jule bahituko dute. ■




Txerrikume pirata

Cornelia Funke, Kerstin Meyer

ELKAR

64 orrialde

8,55 euro



La vida de las lenguas en nuestra sociedad

Batzuen artean

IRUÑEKO UDALA

106 orrialde

5 euro

Iruña, hitz gutxitan bildumaren hastapeneko liburua

Iruñeko Udalaren Kultura Alorrak antolatutako jarduerak hiritarregana hurbiltze aldera jarri dute martxan *Iruña, hitz gutxitan* eta *Pamplona, poco a poco* bilduma. *La vida de las lenguas en nuestra sociedad*. *Posibilidades de futuro* izenburuarekin 2005eko azaroan Iruñeko Udalak eta Nafar Ateneoak anto-latu zuten hitzaldi zikloan egin ziren ekarpenak jasotzen dituen liburua da bildumako lehen urratsa. Bildutakoen artean, Espainiako hizkuntz ondareari buruz M^a Teresa Echenique Elizondok esandakoa; Hizkuntzen iraunkortasu-nari buruz Ernest Querol Puigek zioena; *Zuzenbidea, hizkun-tza eta identitatea* hitzaldian Josep Capdeferro i Plak adiera-ziak; eta Inmigratio-testuinguruetako hizkuntzen erabileraz Sol Tarrés Chamorro egindako ekarpenak daude. ■

Landaluzeren aurreneko nobela

Koldo Landaluze zine kritika-riaren aurreneko nobelako pro-tagonistak 1910ean Enkarter-rietako meatze zuloan sartuta soldata triste bat irabazteko bereak eta bost pasa behar duten meatzariak eta haien familiak dira. Nagusiak zabo-rra balira bezala tratatzen ditu bere langileak, eta hauek greba egitea erabakiko dute. Ugazaba ez da horregatik asko beldurtu-ko, ordea. Zer erabakitzen duen? Eskirolak ekartzea. Azken batean, bere alde ditu, soldatapean dituen hiltzaileez gainera, Guardia Zibilak, legeak egiten dituztenak eta baita herriko apaiza ere. Harro-harro ibiliko da, bere ankerkeria age-rian jarriz. Baina horrek ondo-rioak ekarriko dizkio. Izan ere, ezer galtzekorik ez due-nak beldur gutxi baitu mendeku bila dabilenari bere erantzuna emateko. ■




Días de barrena

Koldo Landaluze

VERBIGRACIA

108 orrialde

9 euro



Aritzona. El roble protector

Martin Etchart

TARTTALO

168 orrialde

12,30 euro

Euskal jatorria ahaztu duen gazte amerikarra

Arizonan jaioetako euskal jatorriko idazlea da Martin Etchart, *The Good Oak* nobelaren egilea. Nobela honetan jatorriz euskalduna den hamahiru urteko mutil bati gertatutakoa kontatzen du. José Carte Rípodasek itzuli du gaztelaniara, *Aritzona. El roble protector* izenburuarekin. Gazteak amerikar petoa izan nahi du, eta ez du ezer jakin bere aitona eta osabak hainbeste maite duten euskaraz eta Euskal Herriaz. Artzainak izan dira beren bizitza guztian, baina dagoeneko urtetan aurrera egin dute eta gaztearen aitak gelditzen zaizkien ardi apurrak saltzea erabaki du, haien borondatea-

ren aurka. Mutila poztu egingo da aitaren deliberoaz, baina laster damutuko zaio bere zaharrei emandako atsekabea. ■

Miren González Goikoetxearen bidaiak eta artelanak

Sri Lankako Mirissan 2005eko abenduaren 19an egindako egonaldiarekin ematen dio hasiera Miren González Goikoetxeak *Biraka. Historias sobre Historias* liburuxka eta CDari. Egileak berak egindako argazki eta margolan ugariz horniturik dator ahalegina. India, Argentina, Thailandia, Brasil... dira bisitatu dituen herrialdeetatik batzuk, eta haietan ikustea egokitu zaiona, eta, bereziki, bertakoe-

kin eta bere ondoan izandakoeekin bizi izan dituenak azaltzen ditu bere idazlanean, gaztelaniaz batzuk, euskaraz beste zenbait. ■

Biraka

Miren González

ARTELEKU

48 orrialde + CDa



JUAN KRUZ IGERABIDE

«Maitagarri-ipuinak, Gorrotagarrien ipuinak ere badira»

Euskal Herriko maitagarri-ipuinak bildu dituzte oraingoan.


Bai baina, aizu, Maitagarri ipuinak deitzen diegun arren, Gorrotagarrien ipuinak ere badira. *Zaku bete hauts* liburuan agertzen diren ipuin gehienak izugarri gogorak dira, tradizioan kontatu izan diren bezalaxe. Hau da, norbaiti eskuak moztzen badizkio, hori esaten da. Bravante Genobebaren hartan kontatzen dena bezala: ama umeei basora bota, eskuak moztuta utzi... Horrelakoak ere agertzen dira ipuin hauetan.

Bestelakorik ere agertuko da, noski?

Bai. Azkartasuna. Heroiak, pertsonaia ahulak bere buru azkartasunaren bidez nola gaingitzen dituen probak, gorrotagarriak menderatu arte.

Eta gorrotagarrienetan gorrotagarriena, nor da?

Nik uste dut pertsonaiarik bortitzena Zirto erregea dela: diktadore nazkante bat besterik ez da, nahi dituenak hiltzen dituena... Eta betiko istorioa: alabaz maiteminduko da heroia, aitaren jazarpena jasango dute biek, eta abar. Honelako istorioak daude liburuan bilduak. Beste bat: *Amak hil nau, aitak jan nau / arreba poxpolinak piztu nau*. Gure arrasto antropofagikoak daude hor: amak hiltzen du, eltzean egosten du, eta aitari ematen dio jateko. Kanibalismoaren oihartzun garbia. Ipuin berean, gero, alaba panpoxak neba berpiztu egiten du: hor dago mito zaharrek berriz osatzeari buruz ziotena; azterketa sinbolikoak eginez gero, haurtzaroaren galera eta bizimodu berri bat hastea izan liteke. Ipuin hau nik Joxe Mari Satrustegiren eskutik ezagutu nuen.



DANI BLANCO

Betiko ipuinen euskal aldaerak

Globalizazioa ahozko ipuinekin hasi zen, Aizkorri argitaletxearen aburuz. Izan ere,

badira aspaldi-aspalditik mundu osoan barreiatutako haur kontakizunak —*Mari Errauts*, esaterako—, gero herri bakoitzak bere modura egokitu baditu ere. Euskal haurrei betidanik ezagutzen dituzten ipuinen euskal aldaerak ezagutzeko parada eskaini nahi izan diete, *Zaku bete hauts. Euskal Herriko maitagarri-ipuinak* liburuen bidez.

Horretarako, belaunaldiz belaunaldi euskal-aman-dreek zaintzen zituzten haurrei kontatu izan zizkieten istorioetatik hama sei aukeratu dituzte. Juan Kruz Igerabideri eskatu zioten bilketa lana egitea, aukeratutako ipuinak euskararen aldetik gaurkotuz eta egokitzen arin batzuez istorio horiek moldatuz. Hautaketa, J. Arratibelek, L. Barandiaran Irizarrek, Xabier Etxaniz Erlek eta Joxe



Zaku bete hauts

Batzuen artean

AIZKORRI

128 orrialde

14,95 euro

Mari Satrustegik nonbaitetik jaso eta ezagutzera emandako istorio batzueetatik aterea izan da. Luis Alonso marrazkilariak diseinatu du *Zaku bete hauts* liburua bere osotasunean, kontakizun bakoitza ilustrazio errealistekin apainduz. Jasotako ipuinen artean, gorago aipatu den *Mari Errautsez* gainera, liburuari izenburua ematen dion *Zaku bete hauts* eta *Baratzuri* bezalako beste asko dago. ■

egileari galdezka